

MINTZOLA

Ahoa Bete Hots jardunaldiak

2014ko uztailaren 2, 3 eta 4an

Euskal antzerkiaren transmisioaz

Euskal Kultura? eta Libertitzeaz liburuaren harietarik tiraka

Antton Luku

Bide onean gabiltzanez...

Badugu bide eginik. Maldaren erdian gelditzen gara, egin lanaren izartzeko, kemena berriz biltzeko egiteke daukagunari berriz lotu aitzin. Une horretan norabideaz nahasi garen sentsazioak destorbu baten efektua dakarke gure baitan. Fobia. Horren konjuratzeko politika gremio ia guziak progresistak dira, diskurtso normalak dio aitzinatzen ari garela, atzo baino hobeki garela gaur, hainbeste lan egin ondoan normal da... Omenaldia egiten zaie hona ekarri gaituzten eragileei eta dominak paparreratzen... Abertzaleak edo oposizioko tradizio luzea dutenak ez dira ezberdin.

Hiztunpolisa liburuan dentsitate nozioak atentzioa erakarri dit. Hizkuntzaren garatzeko baldintza funtsezkoetan ohatzen du Sarasuak. Fermin Etxegoienek *Neurona eta zeurona*-n harroarazi zuen erbia jada, Odriozola heltzen zaio problema berari beste bide batetik eta *Libertitzeaz* bukatzen da tematika berean. Izan ere, Iparraldetik ikusia bada ere, kultura antolaketa berria asmatzea saihestu ezina iduri zait hizkuntza aurrera ateratzeko dentsitate aski lortzearen. Ez da hemen lekua metodoaren aspektu teknikoan eskuen sartzeko, hizkuntzaren baliatzeko memento guztiz zein molde edo kortxiletan katestatuak HITZA EZ DIAT ULERTU garen, nola hatsa eman behar zaion...

Delako liburuan kontzientziara ekarri nahi nuen orain arte diglosiak ziola euskarari babesa eman. Euskara erabilia zen, soziologiaren ikuspegitik, baztertuak edo marjinalak daitezkeen eremu batzuetan, baina barne horretan ibiltzen ginelarik ez zitzaigun heltzen zentroetan inarrostu zuen mesprezua, frantsesarekiko lehia kasik ez zen hautematen, hizkuntza molde naturalean ibiltzen zen hor. Adibide baten emateko, duela oraino guti laborantzako makina bat entregatzera heldu zen

kamioi gidaria gelditzen bazen herriko ostatuan, etxaldearen helbidea euskaraz galde eginen zuen gisa naturalean, euskaraz ariko zitzaion auto stopean hartu edozein mutikoari Lekornerako bidean. Orain frantsesez ariko gara bi kasu horietan, frantsesez ari dira bide bazterretan hodian ehorzteko arroilak egiten dituztenak, denak euskaldunak direlarik. Galde egin behar dugu zer hizkuntzatan ariko garen eta galdera egitea berak erraten du euskarak galdua duela.

Ez da hiztun kopurua afera, dentsitatea baizik. Dentsitate horrek eragina badu euskaraz ari denaren diskurtsoaren baitan ere, hutsik gabeko euskara bat mehe eta arin izaten ahal baita, eta ikusten dira elebiduntasunaren estakurua, euskaraz errateko ezina edo egon ezinaren gordetzen, lehiatzen funtsa frantsesez erraten, hau guzia erdaldunen errespetuz, edo irekidura axolaz beztituz. Euskarak gai finen hedatzeko dentsitate eskasez. Fenomenoa zabaldua da espazio sozio politikoa antolatzen duen abertzale koloreko asanblada guzietan, ia guzietan edo hasteko gure ustez irabazten dutenen baitan. Erreferentzia bilakatu dutenetan.

Libertitzeaz-en igerilekuen irudiarekin erraten nuen gauza hori, lehen Iparralde honen euskararen egoera ehunka putzu sakon eta ilunez erakutsi zitekeen. Holako batean ibiltzen zinelarik igeri egin zenezakeen gustuan, hortik atera eta lehorrean zinen edo idortean, euskararen ikuspegitik, eta desertuko hizkuntzan mintzatu behar: frantsesez. Hortik ezintasuna anomia eta ahalkea, konplexu guzien iturri. Hortaz literatura merke baten ekoizpena delako lotsa horren kasatzeko... Hiria euskararen kontrako espazioa zen eta, orain egiten dugun bezala, euskal hiritarrek kofradia edo sare antolatu bat bazeukaten ehundurik euskal desertu horretan hatsa hartzeko, oasi ttipi batzuk, ez igerika aritzeko, baina zaplastaka bederen, edo basurdeen eran ihalozkatzeko larru eritasunen kasatzeko doia. Orain autoak, komunikazioak, eskolak, herrien, auzoen arteko harresiak erorarazi dituzte eta putzurik ez da, euskarak estaltzen du iparralde osoa, Baiona barne, baina ez dizkigu zangoak ere kukutzen. Igerika aritzeko...

Ura behar dugu ekarri eta horretan ari gara ur horren kalitatea zein den sobera kasu eman gabe nibela goititzen duen ber. Sareak egin behar dira eta marka ona gazte uhaiño bat bada bederen konplexurik gabea, kontzientzia osoan hasten baita euskaraz igerika nonahi, plastikazko igerilekua finkatzen dute beharrez. Baina futitzen dira, gazteak dira... Erreparoa delarik xantierrean bihotza bederen altxatzen du harresia hasi aitzin, dentsitatearen arazoa ez du konpontzen ordea. Euskara bat dela konbentzitu naiz aspaldi eta hala nahi dut ikusi. Pizina bete behar delarik ez gara ariko uraren konpatibilitatea begiratzen... Baina transmisio sistema berritik formatu gazteek beren auzoa ez dutelarik ulertzen, euskalki berean ari direlarik, hitz berekin... bada arranguratzeko. Bata bestearen ondoan diren euskarak olio eta ura bezala ezin nahasiak zaizkigu, koktel hori igeri leku berean...

Libertimenduaren balizko rola joko horretan

Libertitzeaz-ek orrialde anitz dauka libertimenduaren alde estetiko eta artistikoaz. Kultura transmisioak kalitate hauek behar dituela segur banago ere solasa tinkatu nahi dut hemen artedrama horrek transmisioan duen paperera. Zer interes du holako antzerki edo drama forma batek, kanpo itxuratik begiraturaz dantzan zentratua, hizkuntzaren transmisio arloan? Zertan ekar diezaguke falta zaigun ur nibel edo dentsitatea?

Honen erraien aztertzeke lana hartzen badugu libertimendua transmisio sistema gisa irakur genezake, eskola bat izan dela uka ezina da hasteko. Dantza klaseekin hasi eta antolaketa hel-erreza baina konplexu batekin egiten dugu topo. Antolaketa horrek espazio eta publiko eskala ezberdinak hartzen ditu bere hausnarketan, lana banatzen du eta bere parte hartzaileen aniztasunak, ahal ezberdintasunak kontutan hartzen ditu, eta erantzukizun formulatu bat eskatzen dio norberari. Hori guzia jostatze egun baten prestakuntzan. Antzerki talde baten muntatzerakoan esaterako, eta hau da oraino antzerki amateurraren akats nagusienetatik bat ene ustez, ez dugula aski argi aipatzen, haste hastetik, dirua, fokua, furgoneta, zirkuituan nola ibiliko garen, espazioa eta hortik joanez Euskal Herri honetan, euskalkiak eta helburuak. Libertimenduaren funtzionatzetik translazio ttipi bat aski da egitea ulertzeko asko badugula ikasteko sistema zaharretik, gaurko. Kontaktuak hartu behar badira herri eta adin ezberdineko jendeekin, deliberatzen badugu hori guzia dela antzerkia, uste dut ulergarria dela gure igeri leku pribatutik aterako garela. Eta tradizioak biziki fite egiten baitira hemen gaindi urte batetik bestera jada ura igan da gure putzuan.

Hiztunpolisa bi familia abertzaleen legitimitateaz axolatzen da, badaude elkarren ondoan jeltzaleak alde batetik eta ezker abertzaletasuna deitzen dena bereiz. Iparralde honetan (eta uste dut ez dela Iparraldean bakarrik, Nafarroan bederen anitz lekuetan hola da eta...) orokorki abertzaleak begiztatzeko gisan dira erraz eta badira besteak, beste euskaldunak, segitzen baitute euskaraz hitz egiten beren haurrei esaterako. Tendentzia badute abertzaleek euskal kultur arazoa euskararen gainbeherari buru egiteko sortu dituzten elkarten beharren gehitze bezala ikustea. Seaska + aek + irratia euskara dela kontsideratzea. Hizkuntzaren arazoa aipatzen delarik defentsarako sortu diren elkarten arazoak dira azaleratzen eta fenomeno bat ez bada horretan kokatzen ez da ikusten edo ez da aipatzen. Sarasolak dio bi euskalki nagusi badirela orain Euskal Herrian, gaztelaren menpekua eta frantsesaren menpekua. Iparraldean bi berri ikus daitezke: euskararen politikatik sortua, eta bestea, iturri zaharretik jina telebista frantsesarekin nahasia artetan. Irratietako elkarrizketetan biziki argi dira bi hiztun mota horiek eta ez da behatzaileetan inor ez baita horri ohartzen. Konturatzen gara abertzale ez denak ez dakiela holako hitza ateratzen eta onestak bagara, batzuetan, politizatuek gauza horren errateko sindikalismo frantsesetik baliatu kalkoa errepikatzen dutelarik euskararen senetik formula egokiago jalgitzen zaio lasterregi fosilen lerroan ohatuari.

Libertimenduaren rola bi familia horien nahastea litzateke hizkuntzaren mesederako. Eta tresna egokia da oraino ere, dantza delako bi familiak batzen dituen espazio bakarrenetarik bat. Hirugarren familia aipatu gabe ihesa itxura luke solas honek. Azken urte hauetan Iparraldeak aspaldidanik ukan duen emigrazio handiena bizi ukan du. Hortik atera haurrak klase elebidunetan dira eta

hemengotzeko euskal dantza taldeetan dabilta. Eskolan bezainbat eskolatik kanpo jokatzen da euskararen presentzia haur guzien kontzientzian.

Nire ustez, eta hau dut estilistika deitzen parte batean, gazte jendeak erabiltzen duen euskara eskolako beharrentzat egin estandarra da, bizi errealean balio guti duena. Ez da urrunago joan behar frantsesera lerratzen badira hiztun fresko horiek. Seaskako ahal guziak ustiatu dituzten hurrek ere, hiztun osoak dira 20 urteetan, beren munduaren euskarari ari dira, hizkuntza horizontal batean adin berekoen artean moldatua, tendentzia bada gero eta gehiago jendartea hola antolatzeko, eta 25 urteko batek atzeman lezake giro biziki gaztea dantzaldi edo ateraldi batean bera baino 5 urte gutxiagokoak badabilta. Libertimenduaren rola bertikaltasunaren inokulatzea litzateke. Transmisio sano guzietan, ez da urrun joan behar, igerileku ttipien garaira aski da itzultzea, herrietako unitateetan, muga gutxiago bazen zahar eta gazteen artean, auzoarekin bizi zen gehiago eta eskarnia gai ziren honen edo haren euskara. Libertimendua herri gertakizuna zenez, maskarada eta beste antzerki guzietan bezala jalgiarazten zituen kantari, musikari, dantzari ohi guziak eta entseguak efikazitatean galtzen zuena irabazten zuen hizkuntzak, espazioa eta denbora ematen delako euskara guzi horien nahasteari. Ikasten zen euskaraz.

Transmititzen ikasi eta sistematizatu badu ikastolak, bertso eskolak eta beste bere dependentzietan antolatu baditu, praktikotasun mailan eragina ukan duela ezin uka, delegazio jokabidea areagotu du ere. Dantza irakasle zenak, haurren mintzatzen ikastearen rola handia zuten otto, ttantta edo auzoek, ikusi du lan hori egin zela. Joera orokortua da euskaltzaleen artean, uste da orain antolatua dela, egiten dela, eta ez dugula guk gurea gehitserik. Utzikeria hedatu du. Libertimendua niretzat da espazio zerbait berriz sortzea, ate irekirik lituzkeen espazio bat, berriz lanean ezartzeko errateko zerbait duten horiek, gazteen eta haurren hizkuntzak irabaz dezaten aberastasunean, estetikan, poesian eta ahal artistikoan, hortik erantsiko baitiogu balore, plazer eta gozamen.

Hau ez da auto konplimendu bat. Guk gaur egun egiten dugun libertimenduak ez die transmisio mota horiek oro dauzkaten arazoei erantzunik ematen. Ez dugu espazio guzia bisitatzen eta ondorioz ez zaie eremuko haur guziei heltzen, hots, guti gorabehera, egoten da ikastoletako haurren aisialdi. Hauen burasoak klase ertainekoak izanki, hauek dira eskolatik kanpoko ekimen eskatzaile handienak beren haur horiek dituzte tailerrak betetzen, kontziente baitira egia erran burasoak musikari, bertsolari eta antzerkilariak behar dituela euskarak... Santibateren izpiritua hedatu behar genuke, Santa Ageda bezalako etxe korrida horrek printzipiotan dauka etxerik ez uztea atea jo gabe. Antola genezakea dantza eskola euskaraz haur guziek ukan dezaten parada libertimendua bezalako zerbaitetan parte hartzeko bere bizian behin eta edozein roletan? Izan lezakea parada alor horretan eta euskaraz zerbait errateko duen batek entsegu ate irekiaren parean pasatzeko?

Bertsolaria transmisio sistema horren erdian

Libertimendua interpretatua izan da dantza ikuskizun bat bezala non bertsolariak ageri diren intermezzo batzuen kantatzeko dantzariak pausatzeko artean, noiztenka xantza gehiago ukan dutenek joko batzuk ikusi dituzte, pretentsio handirik gabekoak, bertsolarien gaia emateko merezimendu handiena baitute. Helburu etnografikoa bere gisa utzirik libertimenduaren azterketak balio du gehiago pertsonaia ezberdinen egiazko rolaren argira emateko eta agertzen bazaigu bertsolari plaza gisa, oinarritzen bada bertsolariaren gomitatzean edo baldintzak osatzean bertsolariak bere paper sozio politikoa bete dezan, folkloreakeriatik urruntzen gara laster. Bermatzen du ere libertimendua transmisio prozesu gisa, ez ikuskizun soil izatera uzten eta begi bistakoa da euskaraz funtzionatzen duen gauza izanen dela.

Bertsolaria libertimendu eguneko pieza nagusia bada ez da transmisio estrategia horretan bakarrik, drama artistikoki pieza anitzekoa denez gain, arizaleen formakuntzarako irakaskuntza kinka ezberdinek hizkuntza desberdinak eskatzen dituzte, bereziki molde aski laxoan egiten ohi zenez, eta arraileria eta ipuingintza, kontaketa ahala eta ditxolaritza sartzen dira bete betean hor izatearen arrazoian. Ikuskizunetan denetarik ikusi bada ere libertimendu izenaren pean ulertuko da aise hizkuntzak berak irabazten zuela anitz. Libertimendua arte nahasketa edo hobeki erran espresio bide interdependentzian oinarritzen da, ez da bertso eskola eta hizkuntzaren errekurtsoei dagokienez horretan zaigu interesgarri une honetan.

Pasaia errito bat da bolanta jantziaren janztea, heldutasun soziala da hor aldarrikatzen. Adin batera heldzean ez errana bazterrera uzten da, tabuen txirikorda askatzen eta gauza gordeak agerian ematen. Libertimenduak jendarte irakurketa kritika bat egin nahi du, gaia bertso irazkitik pasatuz. Botere zirikatzailea da bere izatean eta hizkuntzaren transmisioa baitugu hemen solasgai oroitarazi behar da hizkuntza bat atxikitzen dela bere kritika, lege eta politikaren ahaletik bestenaz diglosian erortzen gara berriz ere. Bertsolariak *gai*an behar du kantatu egun horretan, formulak eta esapide eraginkorrak atzeman behar ditu baina bereziki eraso angelu bat, polemikari aterabide onartu baten atzemateko, ezin du ihes egin zirtzilen proposamenari, kritikari jada forma proposatu dutelarik hauek. Gutiago ezin du egin.

Gaia jendartean da, urturik edo nahastekaturik, mea bere harri hobian bezala, berotu behar da isur dadin. Alximistak prestatu behar ditu libertimenduak. Hizkuntzak egun horretan ezin errana formulatzera heldu behar du, eta egin ahala manera desberdin eta eraginkorrean. Bertso gaia jendartean da eta librean ari delarik hori bada jada bertsolari lana, hemen sistema guziak emaitza horren bila doa. Lehengo eta oraingo bertsolarien arteko konparaketaren egitea kirol ohitua da bertsozaleen artean, Xalbador, Txirrita oraingoak baino hobeak zirenez. Uste dut ez zutela baldintza beretan kantatzen, jendartean -eta libertimendua horrengatik zait interesgarri- ez zitzaizela gauza bera eskatzen. Joseba Tapia jin da *Ahoa bete hots*-era *Pasaiako huelgari* Txirritak idatzitakobertsoekin. *Libertitzeaz*-en *Hil da Canovas* zititzen dut eta dudan egon nintzen *Huelga*-renak aipatzeko. Ez da hau ere hala beharraren iskin bat. Uste dut bertso horien irakurtzean bertsolariaren papera dela irakurtzen. Jendarte oso baten kontradikzioak ditu horietan biluzten eta ez

da hauen entzutean bertsozale bakarria izanen zazpi euskal herrietan ez ohartzeko horiek bertsoak direla. Funtsean eta forman. Bete-betea asmatzen du.

Tradizio, zaharkeria eta berrikuntza

Ez da artista izena merezi formaz futitzen delarik. Artea forma da. Formak du seduzitzen, engantxatzen, inpaktatzen. Historiaren une berezi eta azken finean aski arraroetan, aldaketa erradikal batetik sor daiteke zirrara, ardurago jendardean kontziente edo inkontziente den material batekin jostatzen da artista, erreferentzia hau gorago ezartzen, hura pusatzen, iragana baliatzen du oraingo erran nahi duenaren metafora gisa. Publikoa kultuago eta zabaltzen da egin daitekeenaren abanikoa. Lan egitea tradizio kontziente baten jabe den publiko batendako ametsa da artista gehienendako, guziendako erran nezake adin eta heldutasun artistiko batetik goiti.

Artistak erran nahi du, gaia azaldu nahi du eta asmatzen du kausitzen duelarik delako gai horren adieraztea forma egokienean, errealista edo sinbolista, figuratibo edo abstraktu baina bide laburrena du bilatzen inpaktua ahantzezin izan dadin.

Etengabeko sorkuntza eskatzen du tradizioaren alegiazko errepikatzeak, egokitapena une guzietakoa da izatekoz. Antzerki entseuetan erraten da testua entzun behar dela beti entzuten den lehen aldia balitz bezala, erraten duen mementoan sortzen balitz bezala aktorearen ahotik eta egia da edozein hizkuntza artistikoarendako. Esanahiari eustea da zuzendari eta dantzari hezle kontzientziadunen betiko helburua, aktoreak istant nimitzanean jakin behar delako zer egiten duen eta zergatik egiten duen. Ahanzten badu, forma maitatuek segitzen dute publikoa biltzen denbora batez baina saihezt ezina den gainbehera hori folkloreak deitzen da. Bertsolaritza bezalako arteek ez daude lanjer horretarik at baina kliseak agertzen baitzaizkie berehala entzule adituei funtsean eta sorkuntzan egoten dira aiseago.

Deus ez da egiten tradizio baten mantentzeko transmisio prozesu horretan baina herri behararen enpirismoak moldatu artedramak bakarretan atera du hizkuntza kinka diglosiko gogorretarik eta nago ahal hori badaukala oraino ere.

Folkloreak eagozten diegu ardua gure arte popularrak kanpokoan zerbitzuko ezarri duten salduei, lasterregi ahanzten dugu guhurrek atera ditugula gure forma ederrenak beren testu ingurutik eta kausa onaren lagun ezartzen ditugularik ez dugu arriskua ikusten. Alta azken hamarkadetan joaldunak edo zamaltzainak ikusi dira edozein manifestazio abertzaleetan beren jatorrizko inauterietan baino gehiago. Interesgarria litzateke eskatzea parte hartzaile guziei zer esanahi irakurtzen diete praktika horiei memento horietan.

Itxura garai honetan kamerak bazkatu behar dira, konbentzitu nahi dugunaren begia erakartzea dugu helburu. Kolore merke saltegia dira gure artedrama zaharrak, guhaurrek folklorizatu ditugu, lan erraza dute kontzientzia txarra pizleek praktika eta defendatzaile hauek ontsa ustiatu ondoan obsolezentziara botatzeko. Auzia uste baino sinpleago ageri da ordea. Emaitzan baino gehiago bere praktikan edo transmititzeko prozesuan du interes artedrama zaharrak eta egoten da xutik honen erraien funtzionarazteko erabiltzen den hizkuntzan. Frantsesez ezin... edo folklorizatua da definizioz. Hizkuntza jendartearena da eta ez anexionatu nahi dutenena. Hizkuntza gure ezberdintasunen eztabaidatzeko du interes eta konfliktoak du hazten. Antzerkian legea da, konfliktorik gabe ez da. Arte drama erakusten duen sozietatearen laborategia da, eskala ttipiago batean, baina kosmogonia bera dauka bere baitan. Ulertua dugu: diskurtsoa jenagarria da, agerian uzten baitu libertimenduaren izpiritu honek nahi gaituela askatu *mugimenduaren* zerbitzuko jarria den kultura batetik. Euskaltzaleei eskatzen zaielako jendarte euskaldun baten lortzeko abertzaleen *diktatetik* hara joatea. Ez despolitizatzea euskararen etsaiek sobera aholkatu diguten bezala edo estakurutzat baliatu duten bezala aspaldi beren utzikeriaren justifikatzeko. Baina hizkuntza eta artea egiazko eztabaida politiko baten ehule egitea, transmisioa egitearekin batera eta transmisio adin guzietan.

Euskaltzaleak eta abertzaleak.

Iparralde honetan ja, euskaltzaleak abertzale heldu gabeak dira, egoera goxoago bat da euskaltzaletasuna non engaiatu nahi ez dutenak egoten diren erdi lo, kontzientzia egiazki jin aitzin. Hots abertzalea gorago da bide intelektualaren bilakaeran, ohartuagoa eta helduagoa. Ulertzekoa da, ideien historian zaletuek, Xarritonek esaterako, neurtu dute testu/idazkietan ze heinetaraino gure zaharrek nazioaren, estatuaren kontzientzia zuten, edo kontzeptu horretara heltzen zirenez batere, ihes egiten zuten nazionalismo erraldioen propagandari eta gerla denboretan idatzi testuek, konparazione, gogoen aztertzekeo parada ezin hobeak eskaintzen dizkigute.

Ohargarria da Iparraldean, kasik alor guzietan zerbait egitekotan hausturaren bidea hautatua izan delarik, edo alor pribatuarena, abertzaleen artean nehork ez baitu ikusten gure euskaltasunaren garapena posible instituzio frantses edo ofizialetatik kanpo. Alor *politikoetan* negoziaketak hautsi dira noizbait, konbentzitze entseguak utzi dira eta Seaska sortu, Aek, irratiak, Laborantza ganbara. Hizkuntza eta kultura alorretan salbu. Hor boz frantses batek diktatzen digu zer estrategiatan behar dugun ibili. Boz bat entzuten dut: baina Seaska, Aek ez ote dira euskara? Erantzun dut gorago...

Abiarazi ditugun orga guziak karrankaka ari direlarik patarrean, ezin goiti jalgi, behar genuke beste xantier bat ireki? Sistema oso eta orokortua diseinatu Iparralde... edo hobeki erran Euskal Herri osoko mailan, nazio eta euskal populua gogoan... Zeren Euskal Herri bat izatekotan behar litezke

euskaldunak bederen izan. Non ez den *euskaldun* erraten tradizioan ez zen beste norbaiti.

Azken denbora hauetan, hemengo mugimenduaren oinarritzko eskaerak *Batera* plataformak bildu ditu. Lurraldetasuna ordezkari dezakeen instituzioa da lehentasuna. Beste gisan, euskal arazoaren konponketa, bakea deitzen zaion presoen askatzea, lehentasunetan ageri da... Euskararen ofizialtasuna ezartzen da ere *check list*-etan nonbait. Kontzientzia onaren emateko, jakinez ez dela sekulan lortuko. Txatoren ordenua bezala kontsidera dezagun Parisetik gibelerakoan idatzi zuen *Berria*-ko artikulua, non erakusten baitzuen Frantziak euro karta izenpetu aitzin bere esanahiaz hustu zuela, euskarari administrazioa eta bizi publikoaren atea aldebat hetsiz. Euro kartak ez du sekulan hizkuntza gutxitu bakarria ere salbatu, ko-ofizialtasunak ere ez funtsean. Hau Txilardegi zenak utzi ziguna da. Orduan, pentsa bere edukiaz hustu karta batek.

Euskal prentsa irakurtzen delarik ez da gauza handirik ezagun horretaz. Zer egin behar dugun edo lehentasuna zaigunez... Hau bezalako hitz hartze batek, hortaz, ez du interesik norabide edo kontzientzia hartze berrien sortzeko baizik.

Joan den urtean gertakari ttipiño bat izan da Lapurdin, edozein Euskal Herriko lurretan pataska itzela sor dezakeena gure *provinciai* hauetan salbu. Enbata mugimenduak bere 50. urtekari gure espezialitatea diren omenaldiren bat antolatu zuen eta holakoei komeni zaien bezala luzimendu zerbait eman nahi zitzaion, Arzallus gomitatua izan zen bertso kantatzera, euskaldun guziak gara bertsozale, eta kantatzeko orde erran zuen:

Badira gauzak ulertzen ez ditudanak, Itsasuko harrian hemen, Enbataren oinarrian, ez da frantseseko hitzik ikusten. Hartu dut azken enbata aldizkaria eta aski lan ukan dut hitz bat atzemateko euskarazkoa. Min eginen die batzuri, eni ere mingarri zait, iduri zait 50 urtez abertzaletasunak ez duela euskararen gaia seriozki hartu.

Ez nekien hemen koherente izateari talibana erraten zitzaionik.

Interesgarria da ohartzea Arzallus ez dela txapeldun hori erraten duelarik baina bertsolari, hori segur. Xalbadorren *Herria eta hizkuntza* bertsoen filiazioetik ari da. Ez du kantatzen, bertsoak, eta balio du hori azpimarratzea, galdu ukan balu bezala bere kontzientzietan eragiteko ahala. Txalotuko zuten denek ahurra pelatu arte, poxi bat pastoralen azken kantuan herri bilduak euskararen alde sekulako engaiamendua hartzen duelarik bezala. Denek Sarkozy bozkatzeko ondoko hauteskundeetan. Edo Hollande gauza bera baita, ezker eskuin oposaketa horrek ez baitu pertinentziarik gehiago orain eta hemen. Bertsoa edergailu ote da orain? Meza kantika baten azantza? Hasteko bertso oximoron honetan trinkotasuna ez du ahanzten. *Abertzaletasunak ez du euskararen gaia seriozki hartu.* Hizkuntzaren militanteak edo bufoi batzuk dira edo talibanak. Integristak, fanatikoak erdi arorat itzularazi nahi gaituztenak, hots anti progresistak. Ez

ezkerrekoak.

Afera seriosa da haatik, Enbatatiarrek erantzuteko ez dute nor nahi igortzen ahal edo erre. Pisu kotsia behar du gudulariak. Mixel Berokoirigoin da armadura soinean zaldira igaiten “euskal ezkerren” xampion gisa.

Uste dut lerro hauen irakurleak ez duela testu azterketarik behar bere bidearen atzemateko eta Berrokoren idazkia bera mintzo dela:

<http://www.enbata.info/articles/beti-gure-hizkuntzan/>

Abertzaleek konbentzitu behar dute. Eta beraz frantsesez mintzatu. Euskara galduko dela badakite baina ez da dramatikoa, gure arimaren parte bat baizik ez baitugu bidean utziko. Lurrak gaitu euskaldun egiten.

Ez nekien hemen koherente izateari talibana erraten zitzaienik.

Transmisioa titulu duen espazio batean gaitik kanpo nabil? Ez dut uste: lehenik transmisioa gauza dadin abandonatu behar da ideia hori, goiti ari garela, aitzinamendua badela, jendea euskararen garapenaz axolatua dela behar den t-shirta badu ere soinean. Istorio honen lehen erakaspina da euskaltzale sortzen bada bat, hizkuntza aske, garatu eta noranahikoa nahi badu batek, ezin duela zerbaitetara heldu abertzale izan gabe. Hizkuntzaren legitimitatea eskubidean idatzi behar delako, legea alde beharko dugulako, bizirauteko beharrezkoa duen dentsitatearen biltzeko. Eta bigarrena mesfidatu behar dela beren burua abertzale deitzen dutenez. Ez fidagaitza direlako, mintzo dira argi, baina ez baitituzte batere gure helburu berak. Hirugarrena beti bertsolarien beharra ukanen dugula ezen bai estatuko boterekoek bai abertzaletasuna kudeatzen dutenek uzten diguten tresna bakarra, espazio bakarra libertimendua baita. Geroan hartuko dituen forma guzietan.